



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Mikel Gereka Zelaia
José María Alzuri Vertiz
Javier Bereau Miquelarena
María Izaskun Altxu Ariztegi

2016ko urriaren 19an, 13:15an, Aparteko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. LURSAILA ESKOLA BERRIA ERAIKITZEKO.

Idazkariak irakurri du Hezkuntza Departamentuko Obren Ataleko zuzendariaren txostena, egokitzat hartuz 1 poligonoko 38 partzela eskola berria eraikitzeke. Irakurri du jarraian Hezkuntzako Azpiegituren Zerbitzuko zuzendariaren idatzia, lursail hura Nafarroako Gobernuaren eskura jartzea eskatuz —ura, argindar, saneamendu eta telekomunikazio zerbitzuekin—, eskola berria eraiki ahal izateko bertan. Udalbatzak aho batez erabaki du:

1. Bat poligonoko 38 partzela Nafarroako Gobernuaren eskura jartzea eskola eraikitzeke. 2.990,21 metro karratu neurtzen ditu lursailak.

2. Hezkuntza Departamentuari eskatzea, sustengarritasun irizpideak erabiltzea proiektua egiteko eta obrak gauzatzeko.

3. Hezkuntza Departamentuari eta Nafarroako Gobernuari eskatzea, Nafarroako Parlamentuak 2013ko maiatzaren 10eko Osoko Bilkuran onetsitako erabakia konplitzea. Erabaki horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatu zen Iturengo arrain-haztegiko lurzatiei salmentarako edo enkanterako administrazio-espeditentari hasiera ematera, balizko enpresa-proiektuak hartu ahal izateko eta 2. puntuan dio: *“Nafarroako Parlamentuak bere egiten du Iturengo Udalaren proposamena, zeinaren bidez eskatzen baita, arrain-haztegiko lurzatiei salmenta edo enkantea modu egokian burutzen bada, Nafarroako Gobernuak transakzio horretan lorturiko dirua erabil dezan ikastetxe berri bat eraikitzeke”*. Arrain-haztegia saldu da —Aurrekontuko zuzendari orokorraren 232/2016 eta 271/2016 Ebazpenak— eta erabaki hori bete behar du Gobernuak.

2. U.E. 4 UNITATEKO BORONDATEZKO BIRZATIKETA, URBANIZAZIOA ETA HIRIGINTZA HITZARMENA.

1. Iturengo alkateak, 2016ko irailaren 7ko Ebazpenean, erabaki zuen hasiera batez onestea I.A.E. eta beste batzuk sustatutako borondatezko birzatiketa proiektua, Iturengo U.E. 4 eremuarena. Espedientea jendaurrean egon da irailaren 13ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta prentsan argitaratu ondoren eta ez du inork alegaziorik aurkeztu.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeko 168. eta 76. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, aho batez erabaki da:

1. Behin-betiko onespina ematea borondatezko birzatiketa proiektuari.
2. Sustatzaileei jakinaraztea proiektua Jabetza Erregistroan erregistratu behar dela.
3. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea onspen hau.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

2. Iturengo alkateak, 2016ko irailaren 7ko Ebazpenean, erabaki zuen hasiera batez onestea I.A.E. eta beste batzuk sustatutako Iturengo U.E. 4 unitatea urbanizatzeko proiektua. Espedientea jendaurrean egon da irailaren 13ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta prentsan argitaratu ondoren eta ez du inork alegaziorik aurkeztu.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeko 134. eta 76. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, aho batez erabaki da:

1. Behin-betiko onespina ematea urbanizazio proiektuari.
2. Jarritako fidantza itzultzea sustatzaileei —9.947,21 euro—. Fidantza jarri zuten, urbanizazio lanak hasi ahal izateko kudeaketa tresnak behin betiko onetsi baino lehen.
3. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea onespina hau.

3. Iturengo alkateak, 2016ko irailaren 7ko Ebazpenean, erabaki zuen hasiera batez onestea kudeaketako hirigintza hitzarmena I.A.E. eta beste batzuekin, espedientea abiarazteko baizik ez, Iturengo U.E. 4 unitatearen eremuan laga beharreko hirigintza aprobetxamenduaren %10 eskudirutan konpentsatzeko. Espedientea jendaurrean egon da irailaren 13ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren (177. zenbakia) eta ez du inork alegaziorik aurkeztu.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeko 25. artikuluan ezarritakoari jarraituz, aho batez erabaki da:

1. Behin-betiko onespina ematea kudeaketako hirigintza hitzarmenari.
2. Hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea alkateari.
3. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea onespina hau.

Izaskun Altxu bilerara sartu da.

3. HERRIKO PLAZA.

Autoen zirkulazio eta aparkatzeak plazan sortzen duten arazoak aztertu dira. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

- Debeku seinalea Udaletxeko paretatik kendu eta poste batean jartzea plazan bertan.
- Egun bankuak dauden tokian kentzen ahal diren pibotak jartzea, 1,50 metroko tartea utzita batetik bestera.
- Aurrerago dauden pibota zaharrak kendu, zuloak tapatu eta losak jartzea.
- Aparkatzeko debekua ez bada errespetatzen, Foruzaingoari deituko zaio isunak ezartzeko (50 euro). Bando bidez informatuko da.

Eta bertzerik ezean, 14:35a direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.